



CONSEIL INTERNATIONAL DES ARCHIVES
INTERNATIONAL COUNCIL ON ARCHIVES

ISAAR (CPF)

KORPORAZIO, PERTSONA ETA FAMILIEN
ARTXIBOETARAKO AUTORITATE-ERREGISTROEI
BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

CONSEIL INTERNATIONAL DES ARCHIVES
INTERNATIONAL COUNCIL ON ARCHIVES

ISAAR (CPF)

KORPORAZIO, PERTSONA ETA
FAMILIEN ARTXIBOETARAKO
AUTORITATE-ERREGISTROEI
BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUA

Deskribapen Arauen Batzordeak xedatua
Canberra, Australia, 2003ko urriaren 27-30

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Eskaintza

Hugo Leendert Philip Stibbe-ri

ICAre¹ Deskribapen Arauen «ad hoc» Batzordearen (1990-1996) eta Deskribapen Arauen Batzordearen (1996-2000) proiektuen idazkari eta zuzendaria

eta

Kent Haworth-i

ICAre Deskribapen Arauen Batzordeko (1996-2000) kidea eta ICAren Deskribapen Arauen Batzordearen (2000-2002) idazkari eta zuzendaria

- Argitaraldia:** 1.a, 2012ko urtarrila
- Ale-kopurua:** 300 ale
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Itzulpena:** Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IVAP)
- Honen itzulpena:** *ISAAR (CPF): International Standard Archival Authority Records for Corporate Bodies, Persons and Families*, 2003
- Fotokonposaketa:** Composiciones Rali, S. A.
Costa 12-14, 7^a - 48010 Bilbao
- Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua
- ISBN:** 978-84-457-3207-6
- Lege-gordailua:** VI 64-2012

© International Council on Archives, rue des Francs-Bourgeois, 60, Paris, Frantzia

© Edizio honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura Saila

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Cultura

Jatorrizko dokumentua ingelesezkoa da. Itzulpen hau erreferentziako dokumentua besterik ez da. Ez da Artxiboen Nazioarteko Kontseiluaren dokumentu ofiziala.

¹ ICA: International Council on Archives (Artxiboen Nazioarteko Kontseilua).

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
1. IRISMENA ETA HELBURUA	10
2. LOTUTAKO ARAUAK ETA JARRAIBIDEAK	12
3. TERMINOEN ETA DEFINIZIOEN GLOSARIOA	14
4. ARAUAREN EGITURA ETA ERABILERA	15
5. AUTORITATE-ERREGISTROEN ELEMENTUAK	18
5.1. Identifikazioaren eremua	18
5.1.1. Entitate-mota	18
5.1.2. Izenaren autoritate-forma(k)	18
5.1.3. Izenaren forma parekoak	19
5.1.4. Beste arau batzuei jarraiki eraturako izen-forma normalizatuak	19
5.1.5. Izenaren beste forma batzuk	20
5.1.6. Korporazioen identifikatzaileak	21
5.2. Deskribapenaren eremua	21
5.2.1. Iraunaldiaren datak	21
5.2.2. Historia	22
5.2.3. Tokia(k)	23
5.2.4. Estatutu juridikoa	24
5.2.5. Funtzioak, eginkizunak eta jarduerak	24
5.2.6. Eskumenak/Lege-iturria(k)	25
5.2.7. Barne-egitura(k)/Genealogia	26
5.2.8. Testuinguru orokorra	28
5.3. Erlazioen eremua	29
5.3.1. Erlazionatutako korporazio, pertsona edo familien izena(k)/identifikatzailea(k)	29
5.3.2. Erlazioaren izaera	29
5.3.3. Erlazioaren deskribapena	30
5.3.4. Erlazioaren datak	30
5.4. Kontrolaren eremua	32
5.4.1. Autoritate-erregistroaren identifikatzailea	32
5.4.2. Artxibo-erakundearen identifikatzailea(k)	32
5.4.3. Arauak edo konbentzioak	33
5.4.4. Erregistroaren egoera	34
5.4.5. Xehetasun-maila	34
5.4.6. Sorreraren, berrikuspenen eta suntsipenaren datak	35
5.4.7. Hizkuntza(k) eta idazkera(k)	35
5.4.8. Iturriak	36
5.4.9. Eguneratze-oharrak	36

6. KORPORAZIO, PERTSONA ETA FAMILIEN, ETA ARTXIBO-DOKUMENTU ETA BESTELAKO BALIABIDEEN ARTEKO ERLAZIOA	37
6.1. Erlazionatutako baliabideen identifikatzaileak eta izenburuak	37
6.2. Erlazionatutako baliabide-motak	37
6.3. Erlazioen izaera	37
6.4. Erlazionatutako baliabideen edo erlazioen datak	38
A ERANSKINA – ISAAR(CPF)ren lehen eta bigarren edizioetako deskribapen-elementuen arteko baliokidetasunen taula	41
B ERANSKINA – Adibide osoak	42
Korporazio batentzako deskribapena. Hizkuntza: ingelesa (AEB)	42
Korporazio batentzako deskribapena. Hizkuntza: gaztelania (Espainia)	45
Korporazio batentzako deskribapena. Hizkuntza: gaztelania (Mexiko)	52
Korporazio batentzako deskribapena. Hizkuntza: portugesa (Brasil)	56
Pertsona batentzako deskribapena. Hizkuntza: ingelesa (Australia)	62
Pertsona batentzako deskribapena. Hizkuntza: italiera (Italia)	71
Pertsona batentzako deskribapena. Hizkuntza: suediera (Suedia)	78
Pertsona batentzako deskribapena. Hizkuntza: alemana (Alemania)	80
Pertsona batentzako deskribapena. Hizkuntza: ingelesa (AEB)	82
Familia batentzako deskribapena. Hizkuntza: ingelesa (Erresuma Batua)	85
Familia batentzako deskribapena. Hizkuntza: frantsesa (Frantzia)	92

HITZAURREA

- P1.** Arau honen lehen edizioa ICAREN Deskribapen Arauetarako *Ad Hoc* Batzordeak (ICA/DDS²) idatzi zuen 1993-1995 urteen bitartean. Araua 1996. urtean argitaratu zuen ICAk. ICA/DDS batzorde iraunkor bihurtu zen Pekinen, Txinan, 1996an izan zen Nazioarteko Biltzarrean. Gaur egungo Deskribapen Arauen Batzordeak (ICA/CDS³) ISAAR(CPF) arauaren berrikuspena egin du, horixe izan duelarik 2000-2004 laurtekoaren lan-programaren eginkizun nagusi.
- P2.** ISAAR(CPF)ren bigarren edizio hau ICAREN Deskribapen Arauen Batzordeak erabakitako bost urteko berrikuspen-lanaren ondorioa da. 2000. urtearen amaieran berrikusketarako oharrak bidaltzeko gonbidapena egin zitzaion artxibistikako nazioarteko komunitateari. Horretarako, gutunak bidali zitzaizkien ICAko kide diren erakunde eta elkarte guztiei, bai eta ICAREN barruan garrantzitsuak diren hainbat erakunderi eta nazioarteko beste organizazio batzuetako kideei ere. Era berean, posta elektronikoa erabili zen ICAREN posta-zerrendan eta beste eztabaidatalde batzuetan iragarpena egiteko. Oharrak bidaltzeko epea 2001eko uztailaren 31ra arte ezarri zen, berrikuste-lanari ekin nahi baitzitzaion Batzordeak Bruselan 2001eko urriaren 3tik 6ra bitartean egingo zuen osoko bilkuran.
- P3.** 2001eko abuztuan ICA/CDSko Idazkaritzak 18 proposamen jasoak zituen hainbat batzorde nazional, erakunde eta pertsonengandik. Oharrak laburpen batean bildu eta Batzordeko kide guztiei banatu zitzaizkien Bruselako osoko bilkura egin baino lehen.
- P4.** ICA/CDSk Bruselan izan zuen osoko bilkuran, aurkeztutako proposamenak aintzat hartu eta arauari egin beharreko aldaketei buruzko hainbat erabaki hartu ziren. Ondoren, ISAAR(CPF) arau berrikusiaren lehen zirriborroa idatzi zen, bertan, Bruselan hartutako erabakiak jasotzen zirelarik. Zirriborro hori Batzordeko kide guztiei banatu zitzaion eta orrazketa gehiago egin zitzaizkion Batzordeak Madrilen, 2002ko ekainean, eta Rio de Janeiron, 2002ko azaroan, egin zituen osoko bilkuretan. Zirriborroa 2003ko urtarrilean argitaratu zen ICA/CDSren webgunean. Une horretan, arau berrikusiaren proposamenari oharrak egiteko eskatu zitzaion artxibistikako nazioarteko komunitateari, horretarako, 2003ko uztailaren 15era arteko epea ezarri. Ohar horiek aintzat harturik, Batzordeak Camberran, Australian, 2003ko urrian egin zuen osoko bilkuran arau berrikusiaren azken bertsioa onartu zen. Azkenik, argitalpena aurkeztu zen ICAk 2004an Vienan izan zuen biltzarrean.
- P5.** ISAAR(CPF) arauaren bigarren edizio hau arau honen lehen edizioaren (1996) bertsio berregituratu eta hedatua da. Arauaren 1996ko edizioak hiru eremu besterik ez zituen jasotzen: Autoritate-kontrolaren eremua, Informazioaren eremua eta Oharren eremua. Edizio honetan lau eremu jasotzen dira: Identifikazioaren eremua (lehengo Autoritate-kontrolaren eremuaren antzekoa); Deskribapenaren eremua (lehengo Informazioaren eremuaren antzekoa); Erlazioen eremua eta Kontrolaren eremua (lehengo Oharren eremuaren antzekoa). Azken bi eremuak arauari egindako ekarpen berriak dira, nahiz eta 1996ko edizioaren 2.3.8 elementuan bazegoen erlazioak dokumentatzeko informazioa. Lau eremu berri horietan ezarritako elementuen eta erregelen egitura eta idazkeraren helburua da kontzeptuak argi uler daitezela eta artxiboak sortu zireneko testuinguruari buruzko dokumentazioaren praktika hobetu dadila ziurtatzea. Halaber, edizio honen beste kapitulu batean artxiboen autoritate-erregistroak artxibo-dokumentuekin

² ICA/DDS: Ad Hoc Commission on Descriptive Standards.

³ ICA/CDS: Committee on Descriptive Standards.

eta bestelako baliabideekin nola lotu azaltzen da, ISAD(G)⁴ arauaren arabera egindako deskribapen artxibistikoak ere barne hartzen direlarik. Berrikusketa-prozesuan profesionalek egindako oharretan agerian geratu zenez, 1996ko arauan eskaintzen zirenak baino argibide eta jarraibide osatuagoak behar ziren. Batzordearen itzaropena da edizio honek ISAAR(CPF) arauari jarraiki artxiboen autoritate-kontrolako sistemak egiteari ekin dioten profesionalek bete nahi dituzten helburuei erantzutea, bai alderdi praktikoari eta bai teorikoari gagozkiola. A ERANSKINean lehen eta bigarren edizioaren deskribapen-elementuen arteko baliokidetasun-taula azaltzen da.

⁴ ISAD(G): General International Standard Archival Description (Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra).

Ondoren adierazten dira, 2000-2004 denboraldian Batzordeko kide izanik, berrikusketa-lanean parte hartu duten ICAREN Deskribapen Arauen Batzordeko kideen izenak.

Nils Brübach (Alemania)

Herman Coppens (Belgika)

Adrian Cunningham (Australia) *Proiektuaren zuzendaria eta idazkaria, 2002-2004*

Blanca Desantes Fernández (Espainia)

Vitor Manoel Marques da Fonseca (Brasil)

Michael Fox (AEB)

Bruno Galland (Frantzia)

Kent Haworth (Kanada) *Proiektuaren zuzendaria eta idazkaria, 2000-2002*

Juan Manuel Herrera (Mexiko), 2002-2003

Gavan Mc Carthy (Australia), 2002-

Per-Gunnar Ottosson (Suedia)

Lydia Reid (AEB)

Dick Sargent (Erresuma Batua)

Claire Sibille (Frantzia), 2003-

Hugo Stibbe (Kanada) *Proiektuaren behin-behineko zuzendaria eta idazkaria, 2002ko ekaina*

Yolia Tortolero (Mexiko), 2003-

Stefano Vitali (Italia) *Lehendakaria*

ICAKo Deskribapen Arauen Batzordeak (ICA/CDS) osoko bilkurak egiteko emandako laguntza eskertzen die honako erakunde hauei:

Archives Générales du Royaume et Archives de l'État dans le Provinces (Brusela, Belgika)

Ministerio de Cultura. Subdirección General de los Archivos Estatales (Espainia)

Arquivo Nacional (Brasil)

National Archives of Australia

Erakunde horiek bilkurak egiteko emandako laguntza, bai dirutan, bai baliabide logistiko eta zerbitzutan, ezinbestekoa izan da arau hau prestatzeko orduan.

1. IRISMENA ETA HELBURUA

- 1.1. Arau honen xedea da artxiboen ekoizpenarekin eta kudeaketarekin lotutako entitateen (korporazio, pertsona eta familien) deskribapenak jasotzen dituzten autoritate-erregistroak egiteko jarraibideak eskaintzea.
- 1.2. Autoritate-erregistroak honako hauetarako erabil daitezke:
 - a) artxibistikako deskribapen-sistema baten barruan korporazio, pertsona edo familia bat unitate gisa deskribatzeko; edo
 - b) deskribapen artxibistikoen sarreren sorrera eta erabilera kontrolatzeko;
 - c) dokumentuen ekoizleen arteko erlazioak, bai eta ekoizleen eta ekoiztutako dokumentuen edo bestelako baliabideen arteko erlazioak ere, dokumentatzeko.
- 1.3. Artxibozainen eginkizun nagusietako bat da artxibo-dokumentuen ekoizleak deskribatzea, deskribapenok eskuz lan egiteko ingurunean nahiz ingurune automatizatuetan egin. Lan horrek dokumentuen ekoizpenaren eta erabileraren —batez ere jatorriaren— testuinguruari buruzko dokumentazio handia eskatzen du, bai eta etengabe eguneratu beharra ere.
- 1.4. Dokumentu honen arau osagarriak (*ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra*) testuinguruari buruzko informazioa deskribapen artxibistikoaren edozein mailatan jasotzea ahalbidetzen du. Halaber, ISAD(G) arauaren arabera, testuinguruari buruzko informazio hori bereiz tratatu daiteke, dokumentuak eta artxiboak deskribatzeko erabilitako beste informazio-elementu batzuekin konbinaturik.
- 1.5. Hainbat arrazoi dago testuinguruari dagokion informazio hori deskribapenetik kanpo tratatzeko. Horrela eginez gero, testuinguruari buruzko informazioa artxibo batean baino gehiagotan ekoizle berak jasota dituen dokumentuen deskribapenekin erlazionatu daiteke, edota ekoizle horrekin lotutako baliabide bibliografiko edo museografikoen deskribapenekin. Erlazio horiek guztiek ikerketa errazten dute eta dokumentuen kudeaketaren jarduna hobetzen.
- 1.6. Ekoizle beraren dokumentuak gordetzen dituzten artxiboek errazago truka dezakete ekoizle horren inguruko testuinguruaren informazioa, betiere baldin eta informazio hori era normalizatuan tratatu bada. Aipatutako normalizazio horrek nazioarte-mailako interesa hartzen du testuinguruari buruzko informazioa herrialde baten mugaz gaindi trukatzeko denean. Gaur egungo nahiz lehenagoko artxiboak mugaz gairik izaera dutenez, beharrezkoa da nazioarteko normalizazioa testuinguruari buruzko informazioa trukatu ahal izateko. Kolonizazioa, immigrazioa eta merkataritza izan dira, besteak beste, artxiboen nazioarte-izaera horren eragileak.
- 1.7. Arau hau artxiboen autoritate-erregistroak partekatu ahal izateko pentsatuta dago, horretarako, korporazioen, pertsonen eta familien deskribapenak osoak, egokiak eta argiak izan daitezela bultzatzen delarik. Araua tokian tokiko arauekin batera erabili behar da edo, halakorik ez bada, tokian tokiko arauak prestatzeko oinarri gisa.
- 1.8. Artxiboetako autoritate-erregistroak liburutegietako autoritate-erregistroen antzekoak dira, izan ere, bi kasuetan, autoritate-erregistroetako deskribapenean sarrera normalizatuak sortu beharra baitago. Deskribapen-unitatearen ekoizlearen izena da sarrera garrantzitsuenetako bat. Sarrera horrek kalifikatzaileak izan ditzake adierazitako entitatearen nortasuna argitzeko ezinbestekoa denean, hala nola izen berdinak edo antzekoak dituzten korporazioak argi bereizteko.

- 1.9.** Nolanahi ere, artxiboetako autoritate-erregistroek liburutegietako autoritate-erregistroek baino behar gehiagori erantzun behar diete. Horrela bada, artxiboetako deskribapen-sistemetan hainbat betekizun gehigarri beharrezko dira, oso garrantzitsua baita dokumentuen ekoizleei buruzko informazioa eta dokumentuen ekoizpenaren testuinguruari buruzko informazioa dokumentatzea. Artxiboetako autoritate-erregistroak liburutegietako autoritate-erregistroak baino harantzago doaz eta, gehienetan, informazio gehiago biltzen dute.
- 1.10.** Ildo beretik, arau honen helburu nagusia artxibo-dokumentuen ekoizleei eta ekoizpenaren testuinguruari buruzko deskribapen artxibistikoa normalizatzeko erregela orokorrak ezartzea, erregela horien bitartez honako hau lortzeko:
- artxiboetara eta artxiboetako dokumentutara irispidea izatea dokumentuen ekoizpenaren testuinguruari buruzko deskribapenean oinarrituta; deskribapen hori dokumentu sarritan ugari eta fisikoki sakabanatuen deskribapenekin erlazionatuta dago;
 - erabiltzaileei artxibo-dokumentuen ekoizpenaren eta erabileraren testuingurua azaltzea, horrela dokumentuen esanahiaz eta garrantziaz hobeto jabe daitezen;
 - dokumentuen ekoizleak zehatz identifikatzea, horretarako entitateen arteko erlazioen deskribapena eginez eta, batez ere, korporazioen administrazioaren aldaketei edota pertsonen eta familien gorabehera pertsonalei buruzko informazioa emanaz; eta
 - deskribapen horiek erakunde, sistema edo sareen artean trukatu ahal izatea.
- 1.11.** Halaber, arau hau betetzen duen artxiboetako autoritate-erregistro batek artxiboko deskribapen-unitatearekin erlazionatutako sarreretan aipatutako edozein korporazio, pertsona edo familiaren nortasuna eta izenaren forma kontrolatzeko balio dezake.

2. LOTUTAKO ARAUAK ETA JARRAIBIDEAK

Oharra: zerrenda honetan jasota daude 2003. urtearen bukaeran, ISAAR(CPF) arauaren bigarren edizioa amaitzerakoan, indarrean zeuden arauen datak. Irakurleoi ohartarazten diegu arauon azken bertsiioei jarraitu behar zaiela.

ISAD(G) – *General International Standard Archival Description*: International Council on Archives⁵ 2000.

ISO 639-2 – *Codes for the representation of names of languages Part 2: alpha-3 code*⁶, Geneva: International Standards Organization⁷, 1998.

ISO 690 – *Information and documentation -- Bibliographic references - Content, form and structure*⁸, Geneva: International Standards Organization, 1987.

ISO 690-2 – *Information and documentation - Bibliographic references - Part 2: Electronic documents or parts thereof*⁹, Geneva: International Standards Organization, 1992.

ISO 999 – *Information and documentation - Guidelines for the content, organization and presentation of indexes*¹⁰, Geneva: International Standards Organization, 1996.

ISO 2788 – *Documentation — Guidelines for the establishment and development of monolingual thesauri*¹¹, Geneva: International Standards Organization, 1986.

ISO 3166 – *Codes for the representation of names of countries*¹², Geneva: International Standards Organization, 1997.

ISO 5963 – *Documentation — Methods for examining documents, determining their subject and selecting indexing terms*¹³, Geneva: International Standards Organization, 1985.

ISO 5964 – *Documentation — Guidelines for the establishment and development of multilingual thesauri*¹⁴, Geneva: International Standards Organization, 1985.

ISO 8601 – *Data elements and interchange formats — Information interchange — Representation of dates and times*¹⁵, 2. ed. Geneva: International Standards Organization, 2000.

ISO 15489 – *Information and documentation — Records management, Part 1 and 2*¹⁶, Geneva: International Standards Organization, 2001.

⁵ ISAD (G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2011.

⁶ ISO 639-2 Hizkuntzen izenak adierazteko kodeak— 2. atala: Alpha-3 kodea.

⁷ ISO: International Standards Organization (Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea).

⁸ ISO 690 — Informazioa eta dokumentazioa — Aipamen bibliografikoak — Edukia, forma eta egitura.

⁹ ISO 690-2 — Informazioa eta dokumentazioa — Aipamen bibliografikoak — 2. atala: Dokumentu elektronikoak eta horien zatiak.

¹⁰ ISO 999 — Informazioa eta dokumentazioa — Aurkibideen eduki, antolamendu eta aurkezpeneko jarraibideak.

¹¹ ISO 2788 — Dokumentazioa, Thesaurus elebakarrak ezarri eta garatzeko jarraibideak.

¹² ISO 3166 — Herrialdeen izenak adierazteko kodeak.

¹³ ISO 5963 — Dokumentazioa — Dokumentuak aztertzeo, edukia zehazteko eta indexatzeko terminoak aukeratzeko metodoak.

¹⁴ ISO 5964 — Dokumentazioa — Thesaurus eleaniztunak ezarri eta garatzeko jarraibideak.

¹⁵ ISO 8601 — Datu-elementuak eta formatuen trukea — Informazio-trukea — Daten eta orduen adierazpena.

¹⁶ ISO 15489 — Informazioa eta dokumentazioa — Erregistroen kudeaketa, 1. eta 2. atalak.

ISO 15511 – *Information and documentation — International Standard Identifier for Libraries and Related Organizations*¹⁷, Geneva: International Standards Organization, 2002.

ISO 15924 – *Codes for the representation of names of scripts*¹⁸, Geneva: International Standards Organization, 2001.

Guidelines for Authority Records and References / revised by the International Federation of Library Associations Working Group on GARE revision, 2nd ed., München¹⁹.

*Mandatory data elements for internationally shared resource authority records: report of the IFLA UBCIM Working group on Minimal Level Authority Records and ISADN*²⁰, 1998 <http://www.ifla.org/VI/3/p1996-2/mlar.htm>

Form and Structure of Corporate Headings: Recommendations of the Working Group on Corporate Headings. Approved by the Standing Committees of the IFLA Section on Cataloguing and the IFLA Section on Official Publications, 1980 (updated in *International Cataloguing and Bibliographic Control* in 1992)²¹.

¹⁷ ISO 15511 — Informazioa eta dokumentazioa — Liburutegiak eta erlazionatutako erakundeak identifikatzeko nazioarteko araua.

¹⁸ ISO 15924 — Idazkeren izenak adierazteko kodeak.

¹⁹ Autoritate-erregistroetarako eta erreferentzietarako jarraibideak, GARE jarraibideak (Guidelines for Authority and Reference Entries) aztertzeke. IFLAk (Liburutegien Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa) duen lan-taldeak berrikusia, 2. ed., Munich.

²⁰ Autoritate-erregistroak nazioartean partekatzeko datu nahitaezkoak: Autoritate-erregistroen gutxieneko maila eta ISADN lantzeko IFLAren UBICM lan-taldearen txostena, 1998 («MLAR» izenez ezaguna).

²¹ Korporazioen sarreraren forma eta egitura: Korporazioen sarreretarako lan-taldearen gomendioak. IFLAren Katalogazio Sailaren eta Argitalpen Ofizialen Sailaren jarduneko Batzordeek onartua, 1980an (Nazioarteko Katalogazioa eta Kontrol Bibliografikoa lanean eguneratua 1992an).

3. TERMINO ETA DEFINIZIOEN GLOSARIOA

- 3.1. Honako glosario hau arauaren atal bat dugu. Terminoen definizioak beren-beregi arau honen testuingururako definitu dira.

Artxibo-dokumentu. Edozein euskarritan eta edozein dokumentu-motatan jasotako informazioa, edozein pertsona fisiko edo juridikok bere eskumenen betekizunean edota bere jardunean ekoiztu, jaso eta gordea. (*Record*)

Autoritate-erregistro. Izenaren forma baimenduna, bestelako informazio-elementu batzuekin batera, aipatutako entitatea identifikatu eta deskribatzea ahalbidetzen duena; halaber, erlazionatutako beste autoritate-erregistro batzuetara bidal dezake. (*Authority record*)

Deskribapen artxibistiko. Deskribapen-unitate baten eta, hala badagokio, hura osatzen duten atalen adierazpen zehatza, dokumentuak identifikatzeko, kudeatzeko eta aurkitzeko nahiz dokumentuon testuingurua eta ekoizpenaren sistema azaltzeko baliagarri den informazioa bildu, erkatu, aztertu eta antolatuz eratutakoa. Termino horren bitartez adierazten da prozesu horren guztiaren emaitza bera ere. (*Archival description*)

Jatorri. Artxibo-dokumentuen eta beren jardunean dokumentuok ekoitzi, bildu, gorde eta erabili dituzten pertsona fisiko edo juridikoen arteko erlazioa. (*Provenance*)

Kalifikatzaile. Deskribapenaren elementuei gehitzen zaien informazioa, autoritate-erregistroa hobeto identifikatu, ulertu edo erabiltzeko. (*Qualifier*)

Korporazio. Izen berezi batez izendatutako organizazio edo pertsona-taldea, entitate baten gisa jarduten duena edota jardun dezakeena. Pertsona juridiko gisa jarduten duen gizabanakoak ere izan daitezke. (*Corporate body*)

Sarrera. Artxibo-deskribapen bat bilatu, identifikatu eta aurkitzeko erabiltzen den izena, terminoa, gako-hitza, esaldia edo kodea, autoritate-erregistroak barne hartzen ditu. (*Access point*)

Ekoizle. Bere jardunean dokumentuak ekoiztu, bildu edota gorde dituen entitatea (korporazioa, familia edo pertsona). (*Creator*)

4. ARAUAREN EGITURA ETA ERABILERA

- 4.1.** Arau honetan artxiboen autoritate-erregistroetan jaso daitekeen informazioak nolakoa izan behar duen ezartzen da, eta erregistro horiek deskribapen-sistema kontrolatu batean sartzeko orientabideak eskaintzen dira. Autoritate-erregistroan jasotako informazioaren edukia autoritate-erregistroa sortzen duen agentziak erabilitako arau edo konbentzioen arabera zehaztuko da.
- 4.2.** Arau honetan informazio-elementuak multzoka biltzen dira; multzo bakoitzean honako hauek jasotzen dira:
- a) deskribapen-elementuaren izena;
 - b) deskribapen-elementuaren helburuaren azalpena;
 - c) elementuari ezarri beharreko arau orokorr(ar)en azalpena; eta,
 - d) ahal den neurrian, arauaren edo arauen erabilera argitzen duten adibideak.
- 4.3.** Paragrafoen zenbakiak erreferentzia gisa besterik ez daude jarrita, aipamenak egin ahal izateko. Zenbaki horiek ez dira erabili behar deskribapenaren elementuak izendatzeko edota deskribapenen antolamendua edo egitura ezartzeko.
- 4.4.** Artxiboetarako autoritate-erregistroen deskribapeneko elementuak lau informazio-eremutan antolatuta daude:
1. Identifikazioaren eremua
(eremu honetako informazioaren bidez, deskribatu beharreko entitatea era unibokoan identifikatzen da eta sarrera normalizatua ezartzen da).
 2. Deskribapenaren eremua
(eremu honetan, deskribatu beharreko entitatearen izaerari, testuinguruari eta jarduerari buruzko informazioa eskaintzen da).
 3. Erlazioen eremua
(eremu honetan, beste korporazio, pertsona edo familia batzuekiko erlazioak jasotzen eta deskribatzen dira).
 4. Kontrolaren eremua
(eremu honetan, autoritate-erregistroa modu unibokoan identifikatzen da, eta erregistroa nola, noiz eta zein agentziak sortu edo eguneratu duen jakiteko beharrezko den informazioa jasotzen da).
- 4.5.** Bestalde, arau honetako 6. kapituluan, artxiboen autoritate-erregistroak entitate ekoizlearen beste dokumentu batzuen deskribapenekin edo entitate horretan jatorria duten nahiz entitate horri buruzkoak diren beste baliabide batzuekin loturak egiteko jarraibideak eskaintzen dira. Halaber, 6. kapituluan, diagrama bat dago artxibo-dokumentuen entitate ekoizleak deskribatzen dituzten autoritate-erregistroen eta entitate horiek ekoiztutako artxibo-dokumentuen deskribapenen arteko erlazioak azaltzeko.
- 4.6.** A eranskinean, arau honen lehen edizioaren eta gaur egungo edizioaren deskribapen-elementuen arteko baliokidetasunen taula ageri da. B eranskinean arau honi jarraiki sortutako artxiboko autoritate-erregistroen adibide osoak jasotzen dira.
- 4.7.** Arau orokor hauei dagozkien elementu guztiak dira baliagarriak autoritate-erregistro bat sortzeko orduan, baina soilik honako lau hauek jotzen dira funtsezkotzat:
- a) entitate-mota (5.1.1. elementua);

- b) izenaren autoritate-forma (5.1.2. elementua);
 - c) iraunaldiaren datak (5.2.1. elementua); eta
 - d) autoritate-erregistroaren identifikatzailea (5.4.1. elementua)
- 4.8.** Deskribatu beharreko entitatearen ezaugarriek eta autoritate-erregistroaren sortzaileak erabilitako sistema edo sarearen beharrek erabakiko dute aukerako zein elementu diren erabili beharrekoak autoritate-erregistro jakin batean, bai eta elementu horiek narrazio-tankeran edo egituratuta azaldu behar diren ere.
- 4.9.** ISAAR(CPF) arauaren arabera sortutako autoritate-erregistro batean ageri diren deskribapen-elementu gehienak erabil daitezke deskribapenaren sarrera gisa. Herrialde edo hizkuntza-komunitate bakoitzak garatu beharko ditu sarreraren normalizaziorako beharrezkoak diren arauak edo konbentzioak. Halaber, herrialde edo hizkuntza-komunitate bakoitzean gara daitezke elementu horien edukia sortu eta aukeratzeko konbentzioak eta erabili beharreko izendegiak. Honako ISO arau hauek baliagarriak dira hizkuntza kontrolatuak garatu eta eguneratzeko: **ISO 5963** *Documentation — Methods for examining documents, determining their subject and selecting indexing terms*; **ISO 2788** *Documentation — Guidelines for the establishment and development of monolingual thesauri*; **ISO 5964** *Documentation — Guidelines for the establishment and development of multilingual thesauri*; **ISO 999** *Information and documentation — Guidelines for the content, organization and presentation of indexes*²². Deskribapen-elementu batean argitaratutako iturri bat aipatzeko orduan, **ISO 690** *Information and documentation — Bibliographic references — Content, form and structure*²³ arauaren azken bertsioa erabiltzera aholkatzen zaie agentziei.
- 4.10.** Arauaren testuan ageri diren adibideak argibide gisa jarrita daude eta ez dira arau. Dagozkien arauetan ezarritakoa argitzen dute, baina ez dute arau berririk gehitzen. Horrela bada, ez adibideak, ezta adibideak aurkezteko modua ere, ez dira jarraibidetzat hartuko. Testuingurua argitzeko, adibide bakoitzaren ondoren, adibidea sortu duen agentziaren izena adierazita dago letra etzanean. Halaber, argibide-oharrak ager daitezke, horiek ere letra etzanean, aurretik **Oharrak**: hitza dutela. Nolanahi ere, adibidearen iturriaren azalpena edo oharrak ez dira nahastu behar adibidearekin berarekin.
- 1.11.** Arau hau ISAD(G) (*Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra*) arauarekin eta dagozkion herrialdeko deskribapen artxibistikorako arauarekin batera erabiltzeko egin da. Arau horiek batera erabiltzen direnean artxibo-kontrolerako sistema edo sare baten testuinguruaren barruan, autoritate-erregistroak artxibo-dokumentuen deskribapenekin lotuko dira eta alderantziz. Lotura horiek egiteko 6. kapitulua erabil daiteke jarraibide gisa. ISAD(G) arauaren arabera egindako deskribapen artxibistikoetan, autoritate-erregistroekiko loturak *Ekoiizle(ar)en izena(k)* (3.2.1.) eta *Korporazioaren historia/Datu biografikoak* (3.2.2.) elementuetan egin daitezke.
- 4.12.** Arau hau herrialde bakoitzeko erregela eta arauarekin batera erabiltzeko sortua dago. Adibidez, artxibozainek euren herrialdeetako arauak jarraituko diete zein elementu errepika daitekeen erabakitzeko orduan. Herrialde askotan deskribapen artxibistikorako sistemek entitate bakoitzeko autoritate-izen bakarra onartzen dute, aitzitik, beste herrialde batzuetan izenaren autoritateko forma bat baino gehiago izan daiteke.

²² ISO 5963 Dokumentazioa — Dokumentuak aztertze, edukia zehazteko eta indexatzeko terminoak aukeratzeko metodoak; ISO 2788 Dokumentazioa — Thesaurus elebakarrak ezarri eta garatzeko jarraibideak; ISO 5964 Dokumentazioa — Thesaurus eleaniztunak ezarri eta garatzeko jarraibideak eta ISO 999 Informazioa eta dokumentazioa — Aurkibideen eduki, antolamendu eta aurkezpeneko jarraibideak.

²³ ISO 690 Informazioa eta dokumentazioa — Aipamen bibliografikoak — Edukia, forma eta egitura.

- 4.13.** Arau honetan artxiboetako autoritate-informazioa trukatzeko beharrezko diren betekizunen alderdi batzuk besterik ez dira zehazten. Artxiboetako autoritate-informazioaren truke automatizata, sare informatikoen bidez egindakoa, arrakastatsua izan dadin, truke horretan parte hartzen duten artxibo guztiek komunikazio-formatu egokia erabili beharra dute. *Encoded Archival Context* (EAC) komunikazio-formatuak, besteak beste, artxiboetako autoritate-datuak Internet bidez trukatzeko aukera ematen du, ISAAR(CPF) araua betetzen delarik. EAC DDT - *Document Type Definitions* (Dokumentu-motaren definizioa) forman garatu da, XMLn (*eXtensible Markup Language*) eta SGMLn (*Standard Generalized Markup Language*).

5. AUTORITATE-ERREGISTROEN ELEMENTUAK

5.1. IDENTIFIKAZIOAREN EREMUA

5.1.1. Entitate-mota

Helburua:

Deskribatu beharreko entitatea korporazio bat, pertsona bat edo familia bat den adieraztea.

Araua:

Autoritate-erregistroan deskribatu beharreko entitatea zein motatakoa den (korporazioa, pertsona edo familia) zehaztuko da.

Adibideak:

Institución

Espainia, Archivo General de Simancas

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Consejo de Guerra

Institución

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Obarra: *Entitate-mota:* Granducato di Toscana, principato mediceo, Auditore dei benefici ecclesiastici, Firenze (1545-1722)/ Granducato di Toscana, principato mediceo, Segreteria del Regio diritto, Firenze (1722-1737)

Familia

Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Orléans, maison d'

Institución

Brasil, Arquivo Nacional

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Arquivo Nacional (Brasil)

5.1.2. Izenaren autoritate-forma(k)

Helburua:

Korporazioa, pertsona edo familia era unibokoan identifikatzeko sarrera normalizatua ezartzea.

Araua:

Deskribatu beharreko entitatearen izena modu normalizatuan erregistratuko da, autoritate-erregistroaren arduraduna den artxibo-zerbitzuak erabilitako herrialdeko nahiz nazioarteko arau edo konbentzioei jarraiki. Beharrezko diren kalifikatzaile guztiak —datak, tokia, jurisdikzioa, jarduera, epitetoa etab.— erabiliko dira izenaren autoritate-forma antzeko izena duten beste entitate batzuetatik bereizteko. Arauak edo konbentzioak elementuan (5.4.3.) elementu honetan zein arau erabili den zehaztuko da.

Adibideak:

Granducato di Toscana, principato mediceo, Auditore dei benefici ecclesiastici, Firenze (1545-1722)

Granducato di Toscana, principato mediceo, Auditore dei benefici ecclesiastici, Firenze (1722-1737)

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Obarra: *Baimendutako izenaren hainbat forma korporazio batentzat*

Consejo de Guerra

Espainia, Archivo General de Simancas

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Consejo de Guerra

Noel family, Earls of Gainsborough
Erresuma Batua, The National Archives: Historical Manuscripts Commission

York University Senior Common Rooms Inc.
Kanada, York University Archives

Dampierre, Auguste-Henri-Marie Picot de (1756-1793 ; général)
Frantzia, Archives départementales de l'Ain

5.1.3. Izenaren forma parekoak

Helburua:

Izenaren autoritate-formak beste hizkuntza edo idazkera batzuetan dituen formak²⁴ adieraztea.

Araua:

Izenaren forma parekoa(k) jasoko d(ir)a, autoritate-erregistroaren ardura duen artxibo-zerbitzuak erabilitako herrialdeko nahiz nazioarteko arau edo konbentzioei jarraiki, beharrezkoa den arau edo konbentzio horiek beharrezko dituzten azpielementu edo kalifikatzaile guztiak ere aintzat hartuta. Arauak edo konbentzioak elementuan (5.4.3.) zein arau erabili den adieraziko da.

Adibideak:

Maestre Racional de la Casa y Corte del Rey de Aragón

Y

Mestre Racional de la Casa i Cort del Rei d'Aragó

Espainia, Archivo de la Corona de Aragón

Oharra: *Autoritate-erregistroa:* Maestre Racional de la Casa y Corte del Rey de Aragón

Awdurdod Cwricwlwm ac Asesu Cymru, 1994-1997

AND

Curriculum and Assessment Authority of Wales, 1994-1997

Erresuma Batua, The National Archives: Historical Manuscripts Commission

International Institute of human rights

Instituto Internacional de Derechos Humanos

Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Oharra: *Autoritate-erregistroa:* «Institut international des droits de l'homme»

5.1.4. Beste arau batzuei jarraiki eraturako izen-forma normalizatuak

Helburua:

Korporazio, pertsona edo familiaren izenaren autoritate-forma ezartzeko erabilitako arauetz bestelako arauetara jarraiki sortutako forma normalizatuak adieraztea. Horrela, autoritate-erregistroak trukatzeko modua eskaintzen zaie profesionalen komunitateei.

Araua:

Deskribatu beharreko entitatearen izenaren forma normalizatua, bestelako arauetara edo konbentzioei jarraiki ezarritakoa, erregistratuko da. Erabilitako araua zehaztuko da edo, beharrezkoa balitz, araua sortu duen zerbitzuaren izena adieraziko da.

²⁴ Kasu batzuetan, batez ere hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoen herrialdeetan, autoritate-erregistroaren ardura duen erakundeak izenaren autoritate-forma bat baino gehiago ezar dezake, denak maila berean. Halaxe gertatzen da sarritan, entitateen izenek hizkuntza edo idazkera ezberdinetan duten formek balio ofiziala duten kasuetan.

Adibideak:

Toscana (Granducato), Segreteria del regio diritto
(RICA = Regole italiane di catalogazione per autore)

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Obarra: *Izenaren forma normalizatua:* «Granducato di Toscana, principato mediceo, Auditore dei benefici ecclesiastici, Firenze (1545-1722)/ Granducato di Toscana, principato mediceo, Segreteria del Regio diritto, Firenze (1722-1737)», *Italiako liburutegien katalogazio arauen arabera*

Mistry, Rohinton, 1952- [AACR2]

Kanada, York University Archives

5.1.5. Izenaren beste forma batzuk*Helburua:*

Korporazioaren, pertsonaren edo familiaren bestelako izen guztiak, Identifikazioaren eremua-
ren ezein tokitan adierazi ez direnak, erregistratzea²⁵.

Araua:

Entitatea izendatzeko erabiltzen diren beste izen batzuk erregistratuko dira, hala nola:

- izen beraren beste forma batzuk, adibidez, akronimoak;
- entitatearen beste izen batzuk, adibidez, izenak denboran zehar izandako aldaketak, dagozkien datak jarrita²⁶;
- pertsonen edo familien izenak denboran zehar izandako aldaketak, hala nola, izenordeak, ezkondu aurreko izenak etab., dagozkien datak jarrita;
- pertsonen eta familien izenen aurretik edo ondoren ageri diren izenak eta tituluak, adibidez, pertsona edo familia baten noblezia-tituluak edo ohorezkoak.

Adibideak:

Regio diritto

Segreteria della reale giurisdizione

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Obarra: *Izenaren bestelako forma:* «Granducato di Toscana, principato mediceo, Auditore dei benefici ecclesiastici, Firenze (1545-1722)/ Granducato di Toscana, principato mediceo, Segreteria del Regio diritto, Firenze (1722-1737)»

<i>Izenaren beste forma batzuk</i>	<i>Erreferentzia gurutzatua</i>	<i>Izenaren autoritate-forma</i>
Consejo de Guerra y Marina Consejo de Guerra Supremo Consejo de Guerra Real y Supremo Consejo de Guerra	Ikus	Consejo de Guerra

Espainia, Archivo General de Simancas

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Consejo de Guerra

²⁵ Eskuzko sistemetan izenaren beste forma batzuk izenaren autoritate-formarekin lotu daitezke «ikus» erako erreferentzia gurutzatuen bidez.

²⁶ Tokian tokiko arau edo konbentzioen arabera, izenaren aldaketak beste erakunde baten sorrera adierazten duela irizten bazaio, erakunde bien arteko lotura erregistratuko da denborazko erlazio baten bitartez Erlazioen eremuan (5.3.).

Noel family, Barons Noel
 Noel family, Barons Barham
 Noel family, Viscounts Campden
 Noel family, baronets, of Barham Court
Erresuma Batua, The National Archives: Historical Manuscripts Commission

Bordeaux, duc de
Frantzia, Centre historique des Archives nationales
Oharra: *Autoritate-erregistroa:* «Chambord, Henri, comte de»

Arquivo Público do Império (1838 – 1890)
 Archivo Público do Império
 Arquivo Público Nacional (1890 – 1911)
 Archivo Público Nacional
 Arquivo Nacional (1911 –)
 Archivo Nacional
Brasil, Arquivo Nacional
Oharra: *Autoritate-erregistroa:* Arquivo Nacional (Brasil)

5.1.6. Korporazioen identifikatzaileak

Helburua:

Deskribatutako korporazioa identifikatzeko erabilitako zenbakizko edo alfa-zenbakizko edozein identifikatzaile adieraztea.

Araua:

Ahal izanez gero, deskribatutako korporazioaren edozein zenbaki ofizial edo bestelako identifikatzaile bat (adibidez, korporazioaren erregistro-zenbakia) erregistratuko da eta identifikatzaile hori ezarri duen jurisdikzioa edo xedapena zehaztuko da.

Adibideak:

Registered company 60096 (Companies House, England)
Erresuma Batua, The National Archives: Historical Manuscripts Commission
Oharra: *Korporazioa:* Cerain Iron Ore Company Ltd

04.374.067/0001-47 (Cadastro Nacional de Pessoas Jurídicas - CNPJ)
 00320 (nº da unidade protocolizadora no Governo Federal)
Brasil, Arquivo Nacional
Oharra: *Autoritate-erregistroa:* Arquivo Nacional (Brasil)

5.2. DESKRIBAPENAREN EREMUA

Eremu honen helburua da korporazioaren, pertsonaren edo familiaren historia, funtzioak, tesuingurua eta jarduerak deskribatzea.

Iraunaldiaren datak (5.2.1.) elementu bereiz gisa erregistratu behar dira.

5.2.3.-5.2.8. elementuei dagokien informazioa elementu egituratu eta bereiz gisa erregistra daiteke, edo narrazio-tankeran 5.2.2. elementuan.

5.2.1. Iraunaldiaren datak

Helburua:

Korporazioaren, pertsonaren edo familiaren iraunaldia erregistratzea.

Araua:

Entitatearen iraunaldiaren datak erregistratuko dira. Korporazioen kasuan, eraketaren, sorreraren, eskumenei buruzko legediaren eta deuseztapenaren datak jasoko dira. Pertsonen kasuan, jaiotzaren eta heriotzaren datak jasoko dira, benetakoak edo gutxi gorabeherakoak; data horiek zeintzuk diren jakiterik ez badago, jarduera-datak jasoko dira. Datak adierazteko sistema parekoak erabiltzen direnean, sistemen arteko baliokidetasunak zehatz daitezke, horretarako dagozkien arauetara jarraiki. Arauak edo konbentzioak elementuan (5.4.3.) datak adierazteko zein sistema erabili den zehaztuko da, adibidez, **ISO 8601**²⁷.

Adibideak:

1516 (probable)/1834-03-24

Espainia, Archivo General de Simancas

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Consejo de Guerra

12th – 20th century

Erresuma Batua, The National Archives: Historical Manuscripts Commission

1573-XXe siècle

Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* «Bérulle, famille»

5.2.2. Historia*Helburua:*

Korporazio, pertsona edo familia baten historiaren laburpena eskaintzea.

Araua:

Deskribatu beharreko entitatearen bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak, jarduerak, lorpenak edo funtzioak erregistratuko dira modu narratiboan nahiz kronologikoan. Nahi izanez gero, generoari, nazionalitateari, familiarari eta erlijio-sinesmenei edo afiliazio politikoei buruzko informazioa jaso daiteke. Ahal izanez gero, datak jarriko dira deskribapen narratiboa osatzeko.

Adibideak:

El Consejo de Órdenes fue establecido a raíz de la incorporación a la Corona de los maestrazgos de las órdenes militares castellanas (Santiago, Calatrava y Alcántara) (1487-1495). Su fecha de creación no está determinada con exactitud, aunque algunos autores la sitúan sobre 1498.

El Consejo de Órdenes, que en 1707 había asumido también la administración de Montesa, aunque no fue formalmente incluido en las reformas de la Administración del Antiguo Régimen de 1834 (RR.DD. de 24 de marzo de 1834, Decreto V), se transformó en 1836 en un nuevo organismo constitucional, el «Tribunal Especial de las Órdenes».

Espainia, Archivo Histórico Nacional

Obarra: *Autoritate-erregistroa:* Consejo de Guerra

The York University Senior Common Room was established at Glendon Hall in 1963. This Senior Common Room became the Glendon College Common Room in 1966 when the Founders College Senior Common Room opened on the Keele Street campus in that year. This latter establishment was renamed the York University College Faculty Common Room in 1968 and, as new colleges were opened on the campus an umbrella body, the York University Senior Common Room Inc., was established to serve as a license holder and victuals contractor for the several SCR's. Membership in the Senior Common Room was restricted to academic and

²⁷ ISO 8601 — Data elements and interchange formats — Information interchange — Representation of dates and times (Datu-elementuak eta formatuen trukea — Informazio-trukea — Daten eta orduen adierazpena).

senior administrative staff, although honorary or special members could be adopted by the membership. The Senior Common Room Inc. was managed by a five-person Board of Directors who were all regular members of the SCR. The Senior Common Room Inc. was disbanded in 1976.

Kanada, York University Archives

Originaire de Champagne, la famille Bérulle fut anoblie par charge en 1573, en la personne de Claude de Bérulle, conseiller au Parlement, marié à Louise Segulier. De cette union naquirent deux fils : Pierre et Jean de Bérulle. Pierre (1575-1629) fut l'auteur de l'établissement des Carmélites, le fondateur et le premier général des prêtres de l'Oratoire en France. Il fut promu cardinal, en 1627. Son frère, Jean eut un fils unique, Charles de Bérulle. L'arrière-petit-fils de Charles, Amable-Pierre-Thomas, marquis de Bérulle, fut premier président au parlement de Grenoble après 1760. Il épousa en 1748 Catherine-Marie-Rolland, fille de Pierre-Barthélémy Rolland, comte de Chambaudoine, conseiller de Grand-Chambre. Le nom des Bérulle s'éteignit au XX^e siècle. La famille Bérulle était alliée aux familles du Châtelet et Habart.

Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Oharra: *Autoritate-erregistroaren historia:* «Bérulle, famille»

